



Zuhaitzaren eguna ospatu da.- Udalak antolatuta zuhaitzaren eguna ospatu zen astearte eta asteazkenean. 150 zuhaitz berri landatu ziren Goiegiko Ganean bi saiotan. Lehenengoan, asteartean egindakoa, Zumaburu-Sasoeta eta Landaberri eskolako laugarren mailako ikasleak aritu ziren eta bigarrenegun, asteazkenean, helduentzako hezkuntza eskolako ikasleak, herriko AEK eta udal euskaltegiak ikasleak eta jubilatutako talde bat gerturatu ziren. Pagoak eta haritzak landatu ziren Lasarte-Oriako udal lorezainen laguntzarekin. Bertan egon zen ere bi egunetan Pablo Barrio alkatea halako ekimenek duten garrantzia azpimarratzeko.

3 PRESOKAK

Herrira mugimenduaren aurkezpena

Villa Mirentxun aurkeztu zen Herrira mugimendua. Honen helburu nagusia preso eta iheslarien etxeratzea da, gatazkaren konponbide prozesuari loturiko ibilbide dinamikobaten garapenean. Bertan izan ziren Manu Ugartemendia eta Lasarte-Oriako taldeko Beñat Iriondo eta Maider Izagirre.

5 EKOLOGIA

Ekozinemaldiaren hirugarren edizio arrakastatsua

Hirugarren urtez, Ekologistak Martxan taldeak antolatutako Ekozinemaldiko filmetako batzuk Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur-etxean izan dira ikusgai. Hauek Lasarte-Oria Bizirik taldeak ekarri ditu herrira beste urte batez eta asko izan dira filmak ikustera gerturatutako herritarrak.

6 KIROLA

LOKEko judokak bikain Espainiko Sanbo txapelketan

LOKEko judoka gazteak Gijonen izan ziren asteburuan Espainiako sanbo txapelketan parte hartzen. Ondo aritu ziren lasarteoriarrak eta etxera ekarri zituzten Espainiako bi titulu eta zilarrezko bi domina. Alebinak beriz, Lezon burutu zen Gipuzkoko txapelketan aritu ziren.



GORKA ARISTEGI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

ALBA
ARROPA DENDA

KOOKAI
NAFNAF
YERSE



Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

Neure kabuz



Jone Miren Hernandez

Kirolean (II)

Joan den abenduan Floren Coliasek, saskibaloizalea eta urtetan Zumaburu-Sasoeta ikastetxean soinketa irakasle izandakoa, erretiroa hartu zuen. Herrian pertsona ezaguna izanda Txintxarrikoek elkarriketatu zuten. Gustura errepasatu nituen bere hitzak, ni ere hainbat urte pasatakoa bainaiz saskibaloizale inguruan.

Elkarrizketan aipatzen zituen gauzen artean bat nabarmendu nahiko nuke aurreko artikuluan airean geratutako gaiarekin bat egiten dutelako. Coliasek bere kezka adierazten zuen egun neska kirolari gutxiago ikusten dituelako.

Abenduan bertan herriko beste soinketa irakasle batek, Joxan Unsainek, bere doktore tesia defendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. 450 orrialde eta gero, hainbat ondorio zerrendatzen zituen. Horien artean berriro ere neska protagonistak.

Unsainek dionez kirol ezberdinak egiten dituzte neskek eta mutilek. Neskek bakar-kako kirolak eta estetikari lotutakoak nahiago dituzte. Mutilek aldiz, taldekoak eta lehiakortasunari lotutakoak. Neska gehiagok parte hartzen omen du eskola kirolean; mutilek klubak eta praktika federatuak nahiago dituzte. Gipuzkoan, neska asko eta askok uzten dute kirola behin 12 urte egin eta gero. Berriz ere, gure gizartearen prestigio nahiz dibertsio iturri den eremu batetik kanpo.

Bi pertsona, bi esperientzia ezberdin, baina ondorio antzekoekin. Kasualitatea?

Zorion agurrak



Naroa

Mila kilo zorion Pitu! Ondo pasa arratsaldean lagunekin. Muxu asko familiaren partetik



Goros

Dagoeneko ederki ospatuko zenituen, seguru! Zorionak lagunenen partetik.



Iker eta Toño

Zorionak familia osoaren partetik. Urte askotarako.



Yanelle

Zorionak! Txokomarrubizko muxuak zure lagun guztien partetik.



Sara eta Lorena

Zorionak printzesak! Lau muxu handi aita eta amatxoren partetik.



Nahia

Zorionak bihotza! Amona Maite, Amaia, Xabi, Noah, Unai eta aitatxoren partetik.



Arantza

Oraingoan bai! Aurten urteak betetzen dituzu. Zorionak! Zenbat dira?



Lontxo eta Bixenta

Zorionak zuen 50. Urteurrenean. Txukun ibili ospakizunetan!



Maialen

Zorionak! Bi muxu potolo zure gurasoen partetik.

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 60-55 euro. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oria erdialdean. Harremanetarako, 657 796 624.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako deitu 943 363 524 telefono zenbakira.
- Logela bila nabil, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin eta ahal izanez gero errolda aukerarekin. Harremanetarako deitu 626 256 051 zenbakira.
- Gela alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Harremanetarako, 647 025 876.

Lan-eskariak

- Neska eskaintzen da etxeko lanak eta ume eta adineko pertsonen zaintzarako. Esperientzia eta erreferentziadun. Harremanetarako, 647 614 537.

- Neska arduratsua eta erreferentziadunak lan egingo luke ume edo adineko pertsonak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. 629 871 605
- Etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 647 025 876.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa edo helduak zaintzeko, interna eta externa moduan. Paperak ditu. Harremanetarako, 690 146 067.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo helduak zaintzeko, orduka, interna edo externa moduan. Esperientzia, informaekia eta paperak ditu. Harremanetarako, 638 302 492.
- Jatorriz euskalduna den gizonetako bat eskaintzen da edozein motatako lana egiteko: sukaldari laguntzaile, baserriko lanak, aiton amonak zaintzen... Lan egiteko gogoarekin. 627206451
- 44 urteko emakume eskaintzen da etxeak garbitu edo pertsona helduen etaumeen zaintza egiteko. Baserri edo etxeetara eta Euskal Herriko edozein probintziara joateko prest. Harremanetarako zenbakia, 608 643 490.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Amane Esnaola Fernandez, otsailaren 17an.



Heriotza

- Doloex Urruzola Iraola, martxoaren 1ean, 86 urte zituela.
- Vicenta Bailo Bescos, otsailaren 27an, 82 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 2 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 3 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 4 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 5 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astearta, 6 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 7 Rodriguez, Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 8 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chulcha, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

PRESOAK

Herrira mugimendua aurkeztu zen Lasarte-Orian

Preso eta iheslariak Euskal Herrira bueltatzea du helburu ekimenak

Egin dezagun bidea lema-pean urtarrilaren 7an, presoan eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazio handia izan zen Bilbon. Honek izan zuen onespeneak dinamika hau tresnaz hornitu behar zela ikusi zen eta Herrira mugimendua sortu da horretarako. Lasarte-Orian asteazkenean aurkeztu zen ekimen berria eta herriko taldeak haien ekin-tzei buruz eman zuten.



Herrira mugimenduaren aurkezpena egin zen asteartean Villa Mirentxun.

Herrira mugimenduaren aurkezpen nazionala egin zen Donostian Otsailaren 5ean eta geroztik herri desberdinetan ekitaldiak egin dituzten mugimenduaren berri emateko. Lasarte-Orian asteazkenean izan zen aurkezpena Villa Mirentxun. Honetan, Herrira-ko kide den Manu Ugartemendia eta Lasarte-Oriako taldeko kideak diren Beñat Iriondo eta Maider Izagirre izan ziren.

Ugartemendia azaldu zuenez, Herriaren helburu nagusia preso eta iheslarien konponbide prozesuari loturiko ibilbide dinamiko baten garapenean. Izan ere, "presoen

ek ere ekarpen handia egin dezakete prozesu horretan". Amnistia lortuz gero, desagertuko den mugimendua dela azpimarratu zuten.

Gainera, garrantzitsua da mugimenduarentzat presoan eagoera agenda politiko guztietan egoteko ahaleginak egitea eta batez ere, gaixo dauden presoan kasuan. Adibide gisa, Txus Martinen egoera aipatu zuten.

Mugimenduak nazio izaera izango duela aipatu zuten Ugartemendia eta honek

inongo alderdi edo pentsaera politikorekin loturirik izango ez duela azpimarratu zuten, "sentsibilitate desberdinetako pertsonak osatua da".

Azalpenaren ostean, herritarrek galderak egiteko aukera izan zuten.

Galderen txandaren ostean, Lasarte-Oriako Herrira-ko kideek mugimenduak gure herrian eman dituen pausak azaldu zituen eta aurrera begira, bertan zeuden herritarrei haien ekarpenak egiteko tarte ere ireki zuten.



Zabaletako bizilagunen elkarteak bildu ziren bilerarako. Bertan alkatea, Alaitz Mendizabal eta parte-hartze teknikaria Larraitz Sarobe.

Herritarren lehen iritzia jaso dira.- Atzo hasi ziren herritarrekin udalak sustatutako bilera sorta. Hitzordua Zabaleta, Zabaleta-Berri eta Goiegiko bizilagunekin izan zen eta auzo elkartearen egoitzan burutu zen lehen bilera. Udal ordezkariak udalaren funtzionamenduaren inguruko azalpenak eman zituzten eta bilera prozesuaren aurkezpena egin zuten. Herritarren kezka ere jaso zituzten idatziz. Gaur bilera Oztaran, Zatarain eta Kaxkarroko bizilagunekin izango da. Hauek ere hitzordua 19:00etan dute Lanbide eskolan.

Astelehenean Basaundi eta Oriako bizilagunekin egingo da bilera auzo elkarte. Udalak bizilagunak bilera hauean parte hartzera animatu nahi ditu. Izan ere, udala eta Lasarte-Oriako bizilagunen arteko komunikazioa zuzena izan dadin jarri dute martxan ekimena. Udaletik jakitera eman dutenez, akats bat dago etxeetara bilera prozesu honen inguruan banatutako informazioan. Telefono zenbaki bat azaltzen da hauean eta gaizki dago, zenbaki zuzena honakoa litzateke 943 376181. Udaletik barkamena eskatzen dute sortutako eragozpenengatik.

BERRIA

Bilera Lasarte-Orian

Berialaguna egiteko kanpaina hasi du BERRIA egunkariak herriz herri, eta euskalgintza eta kulturagintza sektorez sektore. BERRIAren irakurleak eta zaleak ez ezik, euskaraz bizitzeko asmoa duen guztiongan iritsi nahi du.

Lasarte-Orian ere hori lortu nahian, datorren martxoaren 7an, asteazkenean Jalgi Kafe-antokian egingo den bilera gonbidatzen ditu interesatuak dauden herritarrak.

Egunkariako arduradunak azaldu dutenez, "herrian norengana eta nola iritsi gaitzekin ikustea, lankide eta kontaktuak zein izan ditzakegun eta zer egin dezakegun pentsatzea da helburua".

KULTURA

Kultur ekintzetako sarrerak salgai

Lasarte-Oriako Kultura sailak martxo eta maiatza bitarteko ikuskizunen sarrerak salgai jarri ditu lasarteoriasaren.eu web orrialdean.

Adin guztietako eta gustu desberdinetako ekitaldiak antolatu ditu sailak, haur eta helduen antzerkiak, dantza profesionala edo amateurra, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Zazpikoloroa" ikuskizun berria, Gobernu kanpoko erakunde baten ekitaldia... eta hauek joan nahi duten herritarrek lasarteoriasaren orrialdeko sarreren atalean eskuratu ditzakete sarrerak.

KULTURA

Alaia abesbatzaren emanaldia

ONCEko Alaia abesbatzak Arantzazuko Amaren parrokiko 12:30etako meza girotuko du igandean, martxoaren 4an.

Mezaren ostean, Vineta Iglesiassak zuzentzen duen abesbatzak zortzi abestiz osatuko den emanaldia eskainiko du. Euskal doinuak izango dira oinarri halanola, Mendi aldera, Goizian argi hastian edo Saratarra abestiak.

CNT

Bideo emanaldia astelehenean

"Llach: La revolta permanent" dokumentala eskainiko da astelehenean, 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean. FAL-ek CNT-ren laguntza antolatutako ekimen honetan 2006an egindako dokumentala ikusiko da.

1976ko martxoaren 3an Gasteizen langile asanbladan gertatutakoaren ostean, Lluís Llach abeslariak Trantsizio garaiko kantu ezagunetako bat idatzi zuen, Campanades a morts. Hogeita hamar urte geroago, Lluís Llach Gasteizen da egun horretako biktimen omenaldi kontzertuan parte hartzeko. Dokumentalak Llach-en musika eta hitzak, bere oroimenak eta martxoaren 3ko protagonisten hitzak nahasten ditu.

KULTURA

Makulu Ken taldea EHRZ-n

Euskal Herria Zuzenean musika lehiaketa abian da. Antolatzaileek 12 talde aukeratu dituzte eta herriko Makulu Ken taldea da horietako bat.

Hauetako hirurek zuzenean joko dute martxoaren 23an ostiralean Intxaurrendoko kultur aretoan egingo den EhrZren erdi finalean. Epaimahaiak EHRZ lehiaketako 3 taldeek jo ondoren apirilaren 14ko finalera doan taldea aukeratu du.

Hiru talde horiek aukeratzeko internet bidez bozkatu egin behar da. Makulu Ken taldearen alde bozkatzeko, http://ehz-festibala.eu/ehrz#musika_tb orrialdean sartu behar da. Martxoaren 9a arte egingo da epea zabalik.

ZOZKETA

AEK-ren saria 34.184 zenbakiarentzat

AEK-euskaltegiek antolatutako "urtebetez eta hilean 1.000" zozketa bereziaren zenbaki sariduna asteazkenean ONCEn zozketan ateratakoa izan zen 34.184. Honi egokitu zaio urtebetez hiler 1.000 euro jasotzearen saria. Hala ere, zenbakiaren jabea azalduko ez balitz, AEK-k jakitera eman duenez, apirilaren 3-an berriz ere ONCE-ren zenbakia izango litzateke saritua. Hori dela eta, ordura arte zenbakiak gorteta edukitzea gomendatzen da.

150 zuhaitz berri Goiegiko Gainean

▶Asteartean Sasoeta eta Landaberriko laugarren mailako ikasleak izan ziren zuhaitzak landatzen eta asteazkenean, helduentzako hezkuntza eskolakoak, euskaltegietako ikasleak eta jubilatua

Zuhaitzaren eguna ekimena burutu da aste honetan herriko ikastetxeetako haurrekin eta parte hartu nahi izan duten herritar helduekin. Bi saiotan banatuta, lehen haurrak aritu ziren landatze lanetan eta bigarrenean berriz helduak izan ziren protagonistak. Alkatea Pablo Barrio ere bertan egon nahi izan zuen ekimenean parte hartzen. Guztira Goegi Gainean 150 zuhaitz berri landatu dira denak pagoak eta haritzak.

Maidier AZURMENDI

Beste urte batez Zuhaitzaren eguna burutu da Lasarte-Orian. Aurten ere bi deialdi egin ziren, asteartean haurren txanda izan zen eta asteazkenean berriz, helduena. Guztiak gustura aritu ziren pagoak eta haritzak landatzen.

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko 120 ikasle bildu ziren zuhaitzaren eguna ospatzeko astearte goizean eta 44 heldu inguru asteazkenean, jubilatua, EPAko ikasle eta euskaltegietako ikasleak tarteko. Goiegiko Gainean elkartu ziren eta bertan landatu zituzten hainbat pago eta haritza. Guztira 150 zuhaitz landatu ziren, 75 haritz eta 75 pago.

Lorezainen zaintzapean

Eneko Urdanpilleta Lasarte-Oriako lorezainen burua arduratu zen gaztetxo zein helduei landatze prozesuaren inguruko azalpenak emateaz. Zuhaitzaren hiru atalen inguruan aritu zitzairen umeei, sustraiak, enborra eta adarrak, eta hauen funtzioak azaldu zituen. Ondoren, landatzeko prozesuaren nondik-norakoak entzun zituzten adi-adi bertan bildutakoek.

Besteak beste, lurra botatzeaz gain tundra da lehen lan-

datzea egiteko erabiltzen dena "hobe da sustraiak bota ditzen". Hala ere ezin jakin landatutako zuhaitzen artean zenbatek egingo duten aurrera Goiegiko Gainean. "Lehen urtean dago lehortearen arrisku handiena eta hori euri bolumenaren arabera izango da". Zuhaitza zuzen jarrita landatu ostean, lurra ondo zapaldu behar dela azaldu zien Enekok izan ere, ez da barruan haize poltsarik geratu behar. Hau gertatzekotan, zuhaitza berehala lehortuko litzateke.

Pago eta haritz hauen kasuan bertakoak izanagatik babestuta daude, ezingo dira moztu eta gutxienez 15 urte beharko dituzte tamaina nahikoa lortu arte. Ondoren, 150 urte beharrezkoak lirarteke behar bezalako basoa osatzeko hortaz, ezin jakin Goiegiko Gaine urte batzuren buruan baso itxura hartuko duen. Eneko Urdanpilletaren hitzetan, eta bertakoek galdetuta, badira azkarrago hezten diren zuhaitzak urkiak eta lizarrek esaterako, baina kasu honetan hauek hautatu dira bertako zuhaitz motak eta basoak sustatzeko asmotan.

Landatzeko lanak

Zuloa eginda aurkitu zuten



Eneko Urdanpilleta Lasarte-Oriako lorezainen burua haurrei zuhaitzak landatzeko azalpenak ematen.

haur zein helduek eta hauetan txukun jarrita, zuhaixkak landatuak izateko prest. Horrela haurrak taldeka bildu eta aitzurra eskutan, ekin zioten zuhaitza landatzeari. Batzuk trebeago aritu baziren ere, talde guztiak lortu zuten euren zuhaitza behar bezala landatzea. Enekok azaldu moduan, haurrei gustatzen zaien ekintza da hau eta beste urteetan bezala, oso zintzo aritu ziren lanean.

Helduen kasuan bestelakoa izan zen esperientzia. Gazteenek zalantza gehiago izan zituzten landatze lanetan hasiteko orduan, baina bertaratutako jubilatua erraz aritu ziren lanean. Batzuk lorezainei gomendioak eta guzti luzatzera

animatu ziren.

Eugenio Hernandez izan zen parte hartzaileetako bat. Honen hitzetan, askotan egin dako lana izan da zuhaitzak landatzearena. "Gainera azken urteetan ekimen honetan parte hartu izan dut beste kide batzuekin beraz, gustura beste urte batez zuhaitzaren eguna ospatu delako". Landatzeko garaian "sustraiak zabaldua dituela landatu behar da zuhaitza behar bezala bakoitzak bere lekua har dezan". Iaz landatutako zuhaitzei ura botatzea ere gerturatu izan direla azaldu zigen "lehor zeudela ikusita, pasean ura eramatea bururatu zitzaigun eta bizirik jarraitzen dute horietako batzuk".

Udalaren babesa

Bertara gerturatu nahi izan zuen bi egunetan Pablo Barrio alkateak. Haur zein helduekin batera jardun zen lorezain lanetan. Honen hitzetan halako ekimenak politikaz itateaz gain, "umeei naturarekin harremana izaten laguntzen die eta hori garrantzitsua da". Udalak bere aldetik ez du soilik gure haur zuhaitzekin bete nahi, Azkorte bidean ere badira bi eremu berriki zuhaitzak landatu direnak nolabait herriko baso guneak berreskuratzeko ahaleginetan.

Esan beharra dago bi taldeek gustura hartu zutelako ekimena eta hamaiketakoarekin batera ondo egindako lanari amaiera borobila eman ziotela.



Jubilatuak gozoz jardun ziren ere lan eta lan zuhaitzak behar bezala landatzeko.



Zuhaitza landatuta edukita lurra ondo zapaldu behar.



Lasarte-Oria Bizirik! taldeko kideak izan dira Ekozinemaldiko filmak azaldu dituztenak.



Herritarrek bi saioetako filmak ikustera hurbildu ziren hitzaldi aretora. Argazkian, "Abuela Grillo".

Ingurumenaren aldeko borrokak

6. Ekozinemaldiko filmak ikusi dira Manuel Lekuonan, Lasarte-Oria Bizirik!-en eskutik

Hirugarren urtez, Ekologistak Martxan taldeak antolatutako Ekozinemaldiko filmetako batzuk Lasarte-Orian izan dira ikusgai. Asteartean eta asteazkenean Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrek Estatuan, zein atzerrian ingurumenaren alde eta ezarritako azpiegitura handien aurka egiten diren borroka desberdinei buruzko dokumentalak ikusi dituzte.

Aurten ere iritsi da Ekologistak Martxan taldeko kideek antolatutako Ekozinemaldia Manuel Lekuona kultur-etxera.

Lasarte-Oria Bizirik! talderen laguntzarekin, astearte eta asteazkenean film emanaldia interesgarriak izan ziren hitzaldi aretoan. Bertan ikusi

ahal izan ziren munduko hainbat tokitako ingurumen afera ezberdinei buruzko lanak.

Energia eta urrea

Asteartean bi dokumentalekin eman zitzaion hasiera Lasarte-Oriako Ekozinemaldiko saioei.

Lehenengo filmak "MAT. A dónde nos lleva el progreso" Zentral Nuklearretako soberakina banatzeko Europa Hegoaldea eta Afrika iparraldea zeharkatuko duen Goi-tentsioko lineari buruzko izan zen. Honetan Katalunia aldean azpiegitura honen aurka egin ziren ekimenak eta okupazio forestalak ezagutzeko aukera izan zen.

Bigarren filmean, "Oro a la vida", urre meategiekin Ertamerikan eragindako kutsadura, gaixotasun, heriotza eta gizarte arazoak azaldu ziren.

Marrakizi bizidunak

Asteazkenean beste bi peliku-

la ikusteko aukera egon zen.

"Abuela Grillo" film laburraren uraren pribatizazioari buruzko gogoeta poetikoa ikusi zen. Marrakizi bizidunetako filma indigenen kondaira batean oinarritutakoa, euria sortzeko gaitasuna duen amonatzeko abeslariarenean.

Jarraian, "The Pipe" dokumentala ikusi zen. Honetan, gas naturala eramateko hodi bat jartzeak Irlandako kostako herri txiki batean, Rossporden, sortzen dituen arazoak, hala nola, epaiketak eta herritarren iritziak erakusten dira.

Ekozinemaldia beharrezkoa

Antolatzaileek adierazi zute-

nez, ez zuten uste hasi zirenean, seigarren ekozinemaldira iritsiko zirenik, baina argi dute egoera okerrera egin duela eta horrelako egitasmoak gerora "ezinbestekoak" izango direla "gertatzen dena ezagutzeko".

Hauen iritziz, egoera 'inoiz baino larriagoa da, ereduaren porrota. Ez da soilik krisi ekonomikoa, baliabideen krisia ere bada".

Ekozinemaldia ez da soilik Lasarte-Orian egiten. Ekimena aldi berean Euskal Herriko hainbat herritan burutzen da eta guztira hamabi lan izan dira kultur-etxe eta areto ezberdinetan eskaini direnak.

Saharar herria gogoan

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 36. urteurrena ospatu zen astelehenean.

Otsailaren 14ko Udaltzarren Saharar herriaren egoera azaltzen zuen mozioa atera zen aurrera alderdi guztien onspenarekin eta egun hori gogoratzeko bi ekintza egitea adostu zen.

Honela, egun osoz, Mendebaldeko Saharako bandera zin-

tzilikatuta egon zen Udaletxeko balkoian. Eta arratsaldean, "Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean Udaletxe aurrean egin zen elkarteratzea.

Honetan alderdi desberdinetako ordezkariak, Saharar Herriaren lagunak taldeko kideak eta hainbat herritar bildu ziren egoera latza salatzeko.



Hainbat herritar bildu zen Udaletxe aurrean Saharako egoera salatzeko.

Urazpiko sekretuak ezagutzen

Astelehenean Urazpiko bakoian. Eta arratsaldean, "Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat" lemapean Udaletxe aurrean egin zen elkarteratzea. Honetan alderdi desberdinetako ordezkariak, Saharar Herriaren lagunak taldeko kideak eta hainbat herritar bildu ziren egoera latza salatzeko.

Astelehenean izan zen azken saioa eta honetan, Danok Kide elkarteak bereziki eskerrak eman nahi izan zitzaizkien aste hauetako saioetara hurbildu diren herritarrei.

Real Sociedad taldeko Urazpiko taldearen izenean saileko sortzaile den Francisco Pizarrok haien eskertza agertu zien Lasarte-Oriako ikusleei zikloak izan duen harreagaririk eta Udalarari aretoa uzteagatik. Datorren urtean ere Lasarte-Orian



Danok Kide-ko J. Egizabal eta Real Sociedad-eko F. Pizarro azken saioan.

zikloa errepikatzea espero zutela aurreratu zuen.

Hitzen ostean, azken bi dokumentalak ikusi ahal izan ziren Manuel Lekuonako areto nagusian.

Lehenik, Guadalupe irlaren inguruan batiskafoaren barruan marrazo zuriaren bila

murgildu ziren ikusleak Ja' Tay espedizioaren baitan.

Ostean, "Lembah, magiko eta liluragarria" dokumentala ikusi ahal izan zuten bertaritutakoek. Honi esker Indonesiako uretan bizi diren animalia eta landare espezie aniztasuna ezagutu zuten.

OHARRA.-

Squash txapelketako izena ematea

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak beste urte batez XXIV. Squash txapelketa soziala antolatu du. Lehia 2012ko martxoaren 19an hasiko da eta Kiroldegiko squash pistetan norgehiagoka desberdinak ikusi ahalko dira ekainera arte.

Lehiaketan parte hartzeko gutxienez adina 14 urte da. Herritarrek martxoaren 9ra arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Ins-kripzioarekin batera Buruntzaldeako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Aste Santuan kirola eta jokoak

Lehen urtez Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak Aste Santuan kirol eta joko ekintzak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Apirilaren 2tik 13ra kirol eta jolas desberdinak egingo dituzte, 9:30ak 12:30ak bitartean. Buruntzaldeako ibilbideetan zehar ere irteera bat egingo dute.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute. Izena ematea martxoaren 5ean irekiko da. Matricula egin edo informazio gehiago eskuratzeko kiroldegiko bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

SANBOA.-

Martinez eta Garrido Espainiako txapelkun

Lau domina ekarri ditu LOKEko taldeak sanboko estatuko txapelketatik

LOKEko judoka gazteak Gijonen izan dira aste-buru honetan Espainiako sanbo txapelketan. Espainiako bi titulu eta zilarrezko bi domina eskuratu zituzten txapelketa honetan. Honetaz gain, alebinez Lezon Gipuzkoako taldekako txapelketa izan zuten.

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko judokak Espainiako Sanbo txapelketan izan ziren lehengo larunbatean Gijonen. Bi txapelkun berri, Esteban Martinez eta Mario Garrido, bi zilarrezko domina eta zazpigarren postu bat eskuratu zituzten herriko judoek. "Emaitza oso onak" LOKEko Gorka Aristegiren hitzetan.

LOKEko judokak bi maila desberdinetan lehiatu ziren, senior eta junior mailan.

Azken honetan, junior mailan izan ziren lorpen handienak. Esteban Martinez eta Mario Garrido haien pisuko irabazleak izan ziren eta Josu Olmosek zilarrezko domina eskuratu zuen.

Estebanek 70 kiloko mailan bi aurkari izan zituen. Ligaxka modura egin zen lehiaketa eta bie irabazi ostean, txapelkun titulua eskuratu zuen.

Mariok, berriz, aurkari bakarra izan zuen 75 kiloko mailan eta nagusitasun osoz gailendu zen.

Josu Olmosek ere Estebanen antzera ligaxka jokatu behar izan zuen beste hiru aurkariren aurka. Bi borroka irabazi zituen eta bakarra galdu zuen, txapelkun izango zen Aritz Sagarzazuren aurka, hain zuzen ere.

Senior maila

Era berean, senior mailan, Amaia Curiel eta Esteban Martinez izan ziren lehia eta Amaiak maila honetako txapelkun ordetza eskuratu zuen.

Amaiak 64 kiloko mailan bi aurkari izan zituen. Bitan borrokatu behar izan zuen eta norgehiagoka bat irabazi eta beste galdu zuen, gerora txapelkun izango zen Cristina Martinezen aurka.

Estebanek, aldiz, final-zor-zotzirenetan borroka galdu



Alebinen taldea ederki moldatu zen Gipuzkoako txapelketan.

GORKA ARISTEGI

zuen. Bigarren aukera izan zuen eta bosgarren posturako lehia sartu zen. Ez zuen zorte ona izan, berdinketa lortu zuen eta epaileek arerioaren alde egin zuten. Beraz, zazpigarren postuarekin konformatu behar izan zen Lasarte-Oriako gaztea.

Alebinen txapelketa

Bestalde, igandean judoko alebin mailako taldekako txapelketa izan zuten LOKE taldeko gaztetxoek.

Talde Ander Garrido,

Talib Vergara, Ibai Tamayo, Alex Saleta, Garikotz Mena eta Manu Revuelta osatu zuten.

LOKEko taldea hiru talderen aurka lehiatu behar izan zuen eta emaitzak desberdinak izan zituen norgehiagoka bakoitzean, bat irabazi, bat berdindu eta bestea galdu baitzuten.

Hala ere, Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "oso txapelketa polita egin zuten eta egindako lana zoriontzekoa da".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 03

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Touring
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Michelin, 11:30etan

Ostadar-Añorga
Kadeteen Ohorezko maila, igoera

Artia, Irun, 11:30etan

Behobia-Ostadar I. Kadetea, igoera

Michelin, 13:00etan

Texas Lasarteerra-Idiazabal
I. Kadetea, kopa

Michelin, 14:30etan

Ostadar-Tolosa I. Infantila, kopa

Michelin, 16:00etan

Ostadar-Irun 1902
I. Erregionala, igoera

Artia, Irun, 17:30etan

Behobia-Texas Lasarteerra
I. Erregionala, kopa

Beraun, Errenteria, 17:30etan

Beti Ona-Texas Lasarteerra
I. Jubenila, kopa



Michelin, 17:45ean

Ostadar-SanPedrotarrak
Erregional Gorena

Altamira, Ordizia, 18:00etan

Ordizia-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila, igoera

Ugalde-Ventas, Irun, 19:30etan

Mariño-Ostadar
Emakumezkoen Liga, igoera

Igandea 04

Harane, Usurbil 10:00etan

Usurbil-Ostadar Alebinak, kopa

Michelin, 10:30etan

Ostadar-Hondarribia Infantil txikiak, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 02

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30ean, Indaux-Izarra

20:20ean, Buenetxea-Ilargi

21:10ean, Balerdi-Dakara

Larunbata 03

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, Izkiña-Ayete

10:10ean, Trumoi-El Bar de Mau

11:10ean, ISU Leioak-Viña del Mar

12:10ean, Txindoki-Illum

13:10ean, El Punto-Los Tiburones Rojos

14:10ean, Oria kristaldegia-Naiban

Kirolegia, 17:30ean

Buruntza KT Aldaz H.K.-Ceramicas
Nogales Zarautz Nazionala, III. maila

Aldiri, Urretxu, 18:00etan

Goierri- ISU Leioak Euskal Liga

PILOTA

Ostirala 02

Ibaeta, 19:15ean

Intza-Txapagain I

Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. kadetea



Larunbata 03

Michelin, 16:00etan

Intza-Hernani I Errendimendu txapelketa,
eskuz binaka, 2. urteko alebinak

ATLETISMOA

Larunbata 03

Donostia, 17:00etan

Herriko hainbat kirolarik IX.
Aingeru guarda-Ibaetako Krossa
proban parte hartuko dute.

Igandea 04

Beasain, 11:00etan

Herriko hainbat kirolarik Beasaingo
II. Herri Lasterketan parte hartuko
dute.



Donostia, 11:00etan

Herriko hainbat emakume 23.
Lilatoian parte hartuko dute.

DUATLOIA

Larunbata 03

Eibar, 16:00etan.

Herriko hainbat atletak Gipuzkoako
Duatloi sprint txapelketa izango
den Eibarreko duatloian parte
hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 03

Deba, 10:45ean

Bazpi txirrindulari eskolako eta
herriko kadeteek XXIV. Deba
Sarian parte hartuko dute.

Hondarribia, 16:30ean

Bazpi txirrindulari eskolako
infantilek Hondarribiako Sarian
parte hartuko dute.

Igandea 04

Eibar, 10:30ean

Bazpi txirrindulari eskolako eta
herriko jubenilek XXXV. Udaberri
oroimenezkoan parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Igaandea 04

Michelin, 9:00etan

Beltzak Ostadar Jalai taldeko maila
guztiek entrenamendua dute.

BOLO-JOKOA

Igandea 04

Zerain, 10:00etan eta 6:30ean

Ostadar SKT-ko bolo jokalariek
Lehendakari txapelketako lehengo
saioa dute.



— Agenda —

Ostirala 2, Brigitarren komentua, 19:30ean



Musika klasikoaz gozatzeko aukera ona

Rosat eta Ruti hirukotearen musika klasiko emanaldia izango da, Danok Kide elkartearen VII. Musika Topaketean barruan. Flauta, biolin eta fagot hirukotea entzuteko aukera izango da Brigitarren komentuan. XVIII. mendeko Europa erdialdeko Haydn, Beethoven eta Stamitz musikagileen lanak eta XVIII.-XIX. mendeetan bizi izan zen Devienne musikari frantsesaren Aria bat eskainiko ditu hiru lasarte-oriatarrek. Doan.

Larunbata 10, 23:00etan
DJ KA eta DJ SET-en saioak entzun eta dantzatzeko aukera, Kultur kale egitasmoaren barruan.

ABEND KAFE-ANTZOKIAN
Ostirala 16, 23:45ean
"Las culebras" eta "Kalean" taldeen doinuak entzun ahal izango dira Rock gauean. Sarrera, aurretik 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Ostirala 9, 19:30ean
Nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko, Lan eta Lan Beti Lan taldeko kideek "Las siete vidas del gato" antzezlan eskainiko dute. Gaztelaniaz. Sarrera online, 3 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 16, 22:30ean
Ion Martinez eta Saioa Royok "Ispilua" antzezlan eskainiko dute. Euskaraz.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Larunbata 10, 19:00etan
Haren Alde Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako ekitaldia. Albo-ka abesbatza, Jose Ramon San Sebastian, Kike Biguri eta Elena Buge- do izango dira bertan. Sarrera, 6 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar
Rudy artistaren margoen erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Igandea 4, 17:00etan
Haurrentzako zine egitarauaren barruan, "Luke eta Lucy" animazio filma ikusgai izango da. Euskaraz. Sarrera, 3,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Osteguna 8, 21:30ean
Okendo Zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Igandea 11, 17:00etan
Haurrentzako zinearen barruan, "El

gato con botas" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.
Igandea 11, 19:00etan
Okendo Zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da helduentzako zinema atalean. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Osteguna 15, 21:30ean
Okendo Zinema taldearen eskutik, "La piel que habito" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

Bideo emanaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Astlehena 5, 19:00etan
"Llach: La revolta permanent" dokumentala eskainiko da. FAL eta CNT- antolatutako saioa da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
Asteazkena 7, 19:30ean
Ostadar SKT-ko mendi sailak antolatuta, Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizaren "Baso txuriaren babesean" proiektioa eskainiko dute. Iraupen eskiari buruzko lana da.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 3, 23:00etan
Igelaren banda taldearen jazz eta folk doinuak entzuteko aukera paregabea Kultur kale egitasmoaren barruan.

SIGLO 20
Larunbata 10, 20:00etan
Zepequeño&Pelayo hip hop Live! taldearen hip hop emanaldia, Kultur kale egitasmoaren barruan.

— Herritarren txokoa —

Marrakzi eta pintura klaseak
Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Galdutako gauzak
Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, urrezko pultsera, urrezko belarritakoa, neskaren esku-muturreko bat, hiru betaurreko graduatu, bizikleta bat, bi telefono mugikor eta zamarra beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Iradokizunak edo kexak Udalari
Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizunak, kexak edo eskaerak egiteko orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Iratzki ostean, Udaltzeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbidera bidali behar da orrialdea.

Hirigintzako departamentua Ganbo kalean
Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Calçot jana Buruntz-Azpi elkar- tean Martxoaren 10ean
Hau 13:30etan hasiko da umeentzat eta 14:00etan helduentzat. Bazkariaren prezioa 10 eurokoa izango da haurrentzat eta helduek berriz 26 euro ordainduko dituzte.

Martxoaren 5a izango da izena emateko azken eguna. Elkartearen edo Katalunyalasarteoria@gmail.com-en egin daiteke. Haurrentzat begiraleak egongo dira.

— Sarean —



Udalaren web orrialdea

Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdeak, www.lasarte-oria.org, itxura aldaketa txiki bat izan du. Aldaketa nabarmenena erdiko gorputzean doan informazioari garrantzia eman nahi izan diote. Horretarako, "Nabarmenak", "Agenda" eta "Berriak eta Oharrak" atalak desberdinu egin dituzte eta irudiak gehitu dituzte. Hiru atal hauetan Lasarte-Oriako Udalak aurrera eramaten dituen ekimenen berri ematen du. Baina atal hauetaz gain, Udaleko sailetako informazioa dago eskuragarri eta eginkizun administratiboak errazteko zerbitzu telematikoak ere aurki ditzake herritarrek. Udalak kudeatzen duen lasarteoriararen orrialdera lotura zuzena du, baita Foru Aldundi edo Eusko Jaurlaritzako hainbat zerbitzuetara ere. Hala nola, kartografia, kale izendegia edo Eustat zerbitzura.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

OLAIAREN ERRONKA

Bi gazte elkarrekin biziko dira hilabetez herritarren begi-bistan. Olaiaren erronka Aitorrek birziklatzea da. Jarraitu esperientzia berritzaile hau zuzenean eta Internet bidez.

www.sanmarko.net



DONOSTIA: Gipuzkoa plaza
Martxoaren 1etik 11ra

PASAJIA: Gure Zumardia plaza
Martxoaren 14tik 18ra

LASARTE-ORIA: Okendo plaza
Martxoaren 21etik 25era

ERRETERIA: Gamon Zumardia
Martxoaren 28tik apirilaren 1era

Ordutegia: 10:00 - 20:00



ECOVIDRIO

sanmarko